



PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Zenbatetan ez zara ausartu plan bat bakarrik egitea beldurragatik? Gu Batera enpresa gara eta arazo honi soluzioa bilatu diogu. Merkatu ikerketa baten arabera, jendearen %67,6k bakardadea sentitu du noizbait.

Euskal Herriko, lau emakumez osatutako enpresa bat gara, Aiztondo bailarako herrietan (Villabona, Zizurkil, Amasa, Asteasu...) ekintza desberdinak antolatzekeo helburua duguna. Gizartean pertsona askok planak bakarrik egiteko zailtasunak dituztela ikusita, komunitatean elkarrekin egiteko jarduerak sustatzen ditugu: mendi-ibilaldiak, zinemara joatea, kontzertuak, udalekuak... Ekintzak astebururo, batez ere igandeetan, antolatzen dira.

Bestalde, bazkide izateko, 20 €-ko kuota ordaindu behar da hiruhilabeteen, eta bazkide ez direnek ere jardueretan parte har dezakete prezio osoa ordainduz. Gainera, WhatsAppeko talde baten bidez informazioa partekatzen dugu, eta gure web- orrian merchandising-aren produktuak erosteko aukera ere badute. Bukatzeko, herritarren artean inklusioa, genero-berdintasuna eta ingurumenarekiko ardura sustatzen dugu.